

Bergarak euskarazko liburu irakurketa bultzatuko du

Liburutegiko lan batekin gozatu ondoren, hau bueltatzerakoan deskontu txartela lortuko da

Bergara. Azken bi hilabetetan, Bergarako Jardun euskara elkarteak, udal liburutegi eta Elkar megadendarekin elkarlanean, martxan jarri duen Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina hilaren 21era arte luzatzea erabaki du. Antolatzaileek adierazi zutenez, ekimen honen helburu nagusia "euskal literaturaren irakurketa eta kontsumoa bultzatzea da herritarren artean". Era honetan, uda denboraldirako liburu bat merke eskuratzeko "aukera bikaina da", diote egitasmo honen bultza-tzaileek.

Ehun euskal titulu Egin beharrekoa oso sinplea da. Zerbitzu honen erabiltzaileek liburutegian egongo den ehun euskal tituluz osatutako apaletik, liburu bat aukeratu, maileguan hartu eta irakurri beharko dute. Ondoren, hautatutako lanaren gaineko fitxa bat bete beharko da.

Alea bueltatzerakoan, %25eko deskontu txartela emango diete irakurleei. Honekin Elkar dendan beste liburua erosterakoan lehen aipatutako beherapena izango du. Gainera, Jardun euskara elkarteko bazkide izanez gero, erosketa honi %25 gehiago kenduko diote ordaintzerako orduan.
>a.d.